



FORU AGINDUA

Ondare Zerbitzua
Espediente zenbakia: 2022/106

Arabako Foru Aldundiaren jabetzako suhiltzaile ibilgailu batzuk enkante publiko bidez besterentzea.

Arabako Foru Aldundiak hainbat suhiltzaile kamioi ditu, beren antzinasunagatik erabiltzen ez direnak eta berriz ere erabiltzeko aurreikuspenik ez dutenak. Hori dela eta, egokia da ibilgailuak besterentzeko izapideak hastea. Hona hemen ibilgailuen zerrenda:

- VI-9837-J. Marka: IVECO-MAGIRUS. Modeloa: DLK 23-12
- VI-3378-M. Marka: MERCEDES-BENZ. Modeloa: 1935 AK Suhiltzaileak.
- VI-5693-P. Marka: MERCEDES-BENZ. Modeloa: Unimog U1650L.
- VI-7463-P. Marka: MERCEDES-BENZ. Modeloa: 1524 AF Suhiltzaileak.
- VI-3478-U. Marka: MERCEDES-BENZ. Modeloa: 917 AF Suhiltzaileak.

Ibilgailuak altan daude Trafiko Zuzendaritza Nagusian, honako hau izan ezik: MERCEDES-BENZ, 1935 AK Suhiltzaileak. Azken hori behin-behinean bajaran dago.

Ibilgailuak txatarra moduan edo desmuntatzeko salduko dira. Hala ere, erosleren batek ibilgailuren bat martxan edukitzea erabakitzen badu, bera arduratu beharko da beharrezkoak diren konponketak eta kudeaketak egiteaz. Arabako Foru Aldundiak ez du erantzukizunik hartuko ibilgailuen ezkutuko hutsune posibleen gainean.

Sektoreko enpresen eta administrazio publikoen prezioen zerrendak eta taulak kontsultatuta, eta ibilgailuen kontserbazio eta mantentze egoera ikusita, Ibilgailuen Zerbitzuak erabaki du merkatu prezioa 3.500,00 eurokoa dela MERCEDES-BENZ markako 1935 AK Suhiltzaileak modeloko ibilgailuaren kasuan eta 5.000,00 eurokoa gainerako kasuan. Zenbateko horiek lizitazio oinarri gisa ezarri dira.

Arabako Lurralde Historikoko Ondareari buruzko martxoaren 27ko 11/2019 Foru Arauaren 64. artikulua arabera, ondasun higigarri galkorrak, zerbitzurako egokiak ez direnak edo erabilgarriak ez direnak arauan bertan ezarritakoaren arabera saldu ahalko dira.

Hala, 72. artikulua ezartzen duenez, ondasun higigarriak besterentzeko, higiezinaren erregela berberak bete beharko dira. Beraz, aldeztu aurretik tasazioa eginda, Foru Arauaren 46. artikuluan ezarritako esleipen modu eta prozedurak aplikatuko dira, hau da, enkantea, lehiaketa edo zuzeneko esleipena.

Bestalde, Foru Arauaren 71. artikulua arabera, besterentzeak, orokorrean, enkante publiko bidez egin behar dira. Lizitazio oinarria, artikulua horren arabera, gutxienez tasazioaren zenbatekoa izango da, hala badagokio ondasunaren gainean dauden kargak edo zergak kenduta. Edonola ere, lehen lizitazioan ez dira onartuko gutxienez enkantearen oinarriaren helburuak ez diren proposamenak.



Bestalde, Foru Arau horren 69. artikulua, ondasun higigarriak besterentzeko eskumenari eta horren baldintzei buruzkoa, ondarearen arloan eskumena duen saileko foru diputatuari dagokio, saileko foru diputatuak edo foru erakunde autonomoko, zuzenbide pribatuko foru erakunde publikoko edo administrazioko foru partzuergoko legezko ordezkariak proposatuta, ondasunak nora atxikita dauden, izaera edozein dela ere, baldin eta ondasunen balio unitarioa 80.000 eurokoa edo txikiagoa bada.

Horrenbestez, aipatutako aginduekin eta aplikatu beharreko gainerako arauekin bat etorritz, honako hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Enkante publikoa deitzea, suhiltzaileen ibilgailu hauek besterentzeko:

- VI-9837-J. Marka: IVECO-MAGIRUS. Modeloa: DLK 23-12
- VI-3378-M. Marka: MERCEDES-BENZ. Modeloa: 1935 AK Suhiltzaileak.
- VI-5693-P. Marka: MERCEDES-BENZ. Modeloa: Unimog U1650L.
- VI-7463-P. Marka: MERCEDES-BENZ. Modeloa: 1524 AF Suhiltzaileak.
- VI-3478-U. Marka: MERCEDES-BENZ. Modeloa: 917 AF Suhiltzaileak.

Arabako Foru Aldundiak dauden kontserbazio egoeran emango ditu ibilgailuak, eta, beraz, ezingo da horien gainean egin beharreko konponketarik edo bestelako eragiketarik erreklamatu. Ezkutuko hutsuneen ziozko erreklamaziorik ere ezin izango da egin.

Bigarrena. Aipatutako enkante publikoaren baldintzen agiria onartzea, zeina foru agindu honekin batera baitoa.

Hirugarrena. Ondare Zerbitzuak ibilgailuen enkantea egiteko beharrezko izapideak gauzatzea, bai eta Arabako Foru Aldundiaren Ondasunen eta Eskubideen Inbentario Orokorrean dagozkion idazpenak egitea ere.

Laugarrena. Finantza eta Aurrekontuetako zuzendariari edo haren ordezkoari ahalmena ematea ebazpen hau formalizatzeko behar diren agiri publiko edo pribatu guztiak sinatzeko.

Vitoria-Gasteiz.

Itziar Gonzalo de Zuazo

Bigarren diputatu nagusiorde eta Ogasun,
Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatua
Segunda teniente de Diputado General y Diputada
Foral del Departamento de Hacienda, Finanzas y
Presupuestos

María José Perea Urteaga

Jarduneko Finantza eta Aurrekontu zuzendaria
Directora en funciones de Finanzas y
Presupuestos



ARABAKO FORU ALDUNDIAREN JABETZAKOAK DIREN ETA ERABILTZEN EZ DIREN SUHILTZAILE KAMIOIAK ENKANTEAN ATERATZEKO BALDINTZA AGIRIA

1.- KONTRATAZIOAREN XEDEA:

Arabako Foru Aldundiaren jabetzako ibilgailuak besterentzea. Honako suhiltzaile kamioi hauek:

- VI-9837-J. Marka: IVECO-MAGIRUS. Modeloa: DLK 23-12.
- VI-5693-P. Marka: MERCEDES-BENZ. Modeloa: Unimog U1650L.
- VI-7463-P. Marka: MERCEDES-BENZ. Modeloa: 1524 AF Suhiltzaileak.
- VI-3478-U. Marka: MERCEDES-BENZ. Modeloa: 917 AF Suhiltzaileak.
- VI-3378-M. Marka: MERCEDES-BENZ. Modeloa: 1935 AK Suhiltzaileak.

Dauden kontserbazio egoeran besterentzen dira ibilgailuak, eta, beraz,ezingo da erreklamaziorik egin horien gainean egin beharreko konponketa eta eragiketarik badago. Arabako Foru Aldundiak ez du erantzukizunik hartuko ibilgailuen ezkutuko hutsune posibleen gainean.

Ibilgailuak altan daude Trafiko Zuzendaritza Nagusian, honako hau salbu: VI-3378-M, MERCEDES-BENZ, 1935 AK Suhiltzaileak. Azken hori behin-behinean bajaran dago.

Ibilgailuak txatarra moduan edo desmuntatzeko salduko dira. Hala ere, erosleren batek ibilgailuren bat martxan edukitzea erabakitzen badu, bera arduratu beharko da beharrezkoak diren konponketak eta kudeaketak egiteaz.

Ibilgailuen dokumentazioa eta ibilgailuak eurak Aldundiaren Ibilgailuen Atalean daude (Urdarrea kalea, 6), eta eskaintzak aurkezteko epean aztertu ahal izango dira, aurretiazko hitzordua eskatuta, astelehenetik ostiralera, 08:00etatik 13:00etara bitartean.

2.- KONTRATAZIO ORGANOA:

Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatua.

3.- ESPEDIENTE ZENBAKIA:

2022/106 espedientea

4.- ESLEITZEKO PROZEDURA:

Esleipena enkante bidez egingo da, lehia publiko eta orokorrarekin.

Espedientea izapidetze arruntaren bidez izapidetuko da.

5.- LIZITAZIO OINARRIA:



- VI-9837-J. Marka: IVECO-MAGIRUS. Modeloa: DLK 23-12. 5.000,00 euro.
- VI-5693-P. Marka: MERCEDES-BENZ. Modeloa: Unimog U1650L. 5.000,00 euro.
- VI-7463-P. Marka: MERCEDES-BENZ. Modeloa: 1524 AF Suhiltzaileak. 5.000,00 euro.
- VI-3478-U. Marka: MERCEDES-BENZ. Modeloa: 917 AF Suhiltzaileak. 5.000,00 euro.
- VI-3378-M. Marka: MERCEDES-BENZ. Modeloa: 1935 AK Suhiltzaileak. 3.500,00 euro

Eskaintzak gorantz egin beharko dira, eta horietan ez da sartuko Ondare Eskualdaketen gaineko Zergaren zenbatekoa. Era berean, ez dira prezio horretan sartzen ibilgailuen titulartasuna aldatzeko ordaindu behar diren tasa edo prezio publikoak, eroslearen kontura izango baitira.

Lizitatuak bakoitzak ibilgailu bakoitzeko eskaintza bakarra aurkeztu ahal izango du. Bestela, arau honen arau-hausleak dagokion loteari aurkeztutako eskaintzetako bat ere ez da kontuan hartuko.

6.- BERMEAK:

BEHIN-BEHINEKO BERMEA. Lizitazioan parte hartzeko, interesdunek 1.000,00 euroko fidantza eratu beharko dute interesatu dakikeen ibilgailu bakoitzeko.

Fidantza honako modu hauetakoren batean eratu ahal izango da, eta ondoren adierazten diren agirien bidez egiaztatuko da:

- Dirutan; kasu horretan, Arabako Foru Aldundiak hainbat erakundetan irekita dituen kontu korranteetako edozeinetan sartu izanaren frogagiria aurkeztu beharko da. Era berean, inprimakia beteta aurkeztu beharko da (3. eranskina, Hirugarrenen fitxa), Arabako Foru Aldundiak fidantza itzultzeko erabiliko duen kontuari buruzkoa, hala dagokionean.
- Banku abalaren bidez; Foru Aldundiko Finantza Kudeaketa Zerbitzuan sartu izanaren egiaztatzearen bidez egiaztatuko da hori.
- Kauzio aseguru kontratu baten bidez ere eratu daiteke. Kontratua kauzioaren arloan lan egiteko baimena daukan aseguru entitate batekin egin behar da.

Bermea kontratuaren formalizazioari lotuta geratuko da, eta behin formalizatzen denean itzuliko zaie lizitatuzaileei. Proposamen bat arrazoirik gabe kenduz gero, fidantza konfiskatuko da, beste zigor batzuk aplikatzeari kalterik egin gabe.

Bermea kontratuaren amaiera onari lotuta geratuko da, eta behin ibilgailua entregatzen denean itzuliko zaie lizitatuzaileei. Proposamen bat arrazoirik gabe kenduz gero, fidantza konfiskatuko da, beste zigor batzuk aplikatzeari kalterik egin gabe.

Ibilgailuak entregatzeko unean esleipendun gertatzen ez diren lizitatuzaileei bermea itzuliko zaie.

BEHIN BETIKO BERMEA. Ez da behin betiko bermerik eskatzen.

7.- KONTRATUARI BURUZKO DOKUMENTAZIOA ETA INFORMAZIOA:

Interesdunen eskura dago, hemen:

- Arabako Foru Aldundiko Ondare Zerbitzua (Samaniego kalea 14, laugarren solairua, Vitoria-Gasteiz).



- Arabako Foru Aldundiaren web orria (www.araba.eus)

Prozedurari buruzko informazioa eska daiteke Ondare Zerbitzuan (Samaniego kalea 14, 4. solairua, Vitoria-Gasteiz) edo posta elektronikoaren bidez (patrimonio.finanzas@araba.eus).

Gainera, telefono bidezko kontsultak egin ahal izango dira 945 18 18 18 telefonoan (luzapena: 54124).

Eskatzen diren argibideen erantzunak ez dira inola ere lotesleak izango Arabako Foru Aldundiarentzat.

Enkantean aterako diren ibilgailuen inguruabarrei dagokienez, informazioa eskatu ahal izango da Aldundiaren Ibilgailuen Zerbitzuan (Urartea kalea 6). Telefonoz: 945 18 18 18, luzapena 55103. Halaber, helbide edo telefono berean eskatu ahal izango da ibilgailuak aztertzeko hitzordua.

8.- PROPOSAMENAK AURKEZTEKO EPEALDIA:

Proposamenak 30 egun naturaleko epean aurkeztuko dira, iragarkia ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita, eta epea amaitzen den eguneko 14:30ak arte, salbu eta larunbata edo jaieguna bada; kasu horretan, hurrengo egun baliodunera arte luzatuko da.

9.- PROPOSAMENAK AURKEZTEKO TOKIA:

Arabako Foru Aldundiaren Erregistro Orokorra, Probintzia plaza, 5 - behea, VITORIA-GASTEIZ. Proposamenak postaz ere bidali ahal izango dira, administrazio publikoen kontratuen araudian ezarritako baldintzetan.

10.- PROPOSAMENAK AURKEZTEKO MODUA:

Gutun-azal bakarra aurkeztuko da eskuratu nahi den ibilgailu bakoitzeko, honako hauek adierazita: SUHILTZAILEEN KAMIOIEN ENKANTEA 2023, ibilgailuaren matrikula eta lizitatzaillearen izena edo izen soziala. Gutun-azalean honako hauek sartuko dira:

- Proposamen ekonomikoa, erantsitako ereduaren arabera egina (1. eranskina).
- Interesdunak zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela eta Arabako Foru Aldundiarekin kontratuak egiteko debekurik ez duela adierazten duen erantzukizunpeko adierazpena, agiri honi erantsitako eranskinean agertzen den ereduaren edo antzekoaren arabera (2. eranskina).
- Fidantza sartu edo gordailatu izanaren frogagiria, edo kauzio aseguru edo abala aurkeztu izanaren egiaztagiria.

Proposamenak postaz aurkezteko, zehatz-mehatz bete beharko dira Herri Administrazioen Kontratuen Erregelamenduko 80. artikuluan jasotako aginduak, eta horiek bete ezean ez dira onartuko. Eskaintzak postaz aurkezteko iragarkia eskaintzak aurkezteko epearen barruan egin ahal izango da, helbide honetara bidalitako posta elektronikoaren bidez: patrimonio.finanzas@araba.eus.

Ez da onartuko posta elektronikoz aurkeztutako eskaintzarik.

11.- KONTRATAZIO MAHAIA:

Kontratazio Mahaiaren osaera honako hau izango da:

- Finantza eta Aurrekontu zuzendaria; lehendakari gisa jardungo du.
- Ondare Zerbitzuaren burua.



- Ibilgailuen Zerbitzuaren burua.
- Kontuhartzailetza Zerbitzuaren burua
- Ondare Zerbitzuaren teknikari letradua, idazkari lanak egingo dituen.

Aurreko guztiek beste pertsona bat eskuordetu dezakete.

12.- PROPOSAMENAK IREKITZEA:

Aurkezteko epea amaitu eta hurrengo bigarren egun baliodunean irekiko dira proposamenak, salbu eta aurreikusitako prozeduren arabera postaz proposamenen bat aurkeztu bada eta horren berri izan bada.

13.- ESLEIPENA:

Gutun-azalak ireki ondoren, eskaintza ekonomiko handienei esleitzeko proposamena egingo da, eta dagokion foru agindua emango da. Agindu hori lizitatzailerak guztiei jakinaraziko zaie.

Eskaintzarik handienari esleitzea ezinezkoa bada, hurrengo eskaintza handienari esleituko zaio, eta horrela hurrenez hurren.

14.- PREZIOAREN ORDAINKETA ETA TRANSFERENTZIA:

Esleipen proposamena egin eta hurrengo 30 egunen barruan egingo da ordainketa. Esleipena jakinarazi ondoren, esleipendunak eskaintako zenbatekoa ordainduko du, bai eta ibilgailuen titulartasuna aldatzeko edo behin betiko baja emateko ordaindu beharreko zergak eta tasa edo prezio publikoak ere. Horiek guztiak erosleak ordainduko ditu.

Fidantza eskudirutan eratu duten esleipendunek zati hori ordaindu beharreko zenbatekotik kendu ahal izango dute.

Epe hori igarota diru sarrerarik egiten ez bada, esleipenari uko egin zaiola ulertuko da, fidantza galduta, eta hurrengo eskaintzarik onenari esleituko zaio.

15.- IBILGAILUAK ENTREGATZEA:

Esleipenaren prezioa ordaindu eta Trafiko Agintaritzaren aurrean dagokion transferentzia edo baja izapidetu ondoren, ibilgailuak Ibilgailuen Atalean entregatuko dira.

Ibilgailuak erretiratzeagatik sor daitezkeen gastuak esleipendunek ordaindu beharko dituzte.

1. ERANSKINA

ARABAKO FORU ALDUNDIAREN JABETZAKOAK DIREN ETA ERABILTZEN EZ DIREN SUHILTZAILE KAMIOIAK EROSTEKO PROZEDURAN PARTE HARTZEKO ESKARIA ETA ESKAINTZA EKONOMIKOA

_____ jaunak/andrea, adinez nagusia (NAN zenbakia: _____, jakinarazpenetarako helbidea: _____, eta helbide elektronikoa: _____) bere izenean (edo _____ ordezkatuz, enpresaren IFK: _____), jarduteko



gaitasun juridikoa osoa edukita, Arabako Foru Aldundiak erabiltzen ez diren bost suhiltzaile kamioi besterentzeko deitu duen deialdiaren jakitun, honako hau

Adierazten du:

1. Baldintza agirian eskatzen diren baldintza guzti-guztiak betetzen dituela.
2. Erabat ezagutzen eta onartzen dituela baldintza agiriko klausula guztiak eta gainerako kontratu agirietatik eratoritzen diren gainerako betebeharrak guztiak kontratuaren esleipenduna izanez gero.
- 3.- Ibilgailu honen salerosketa egingo duela (_____ marka, _____ matrikula), honako prezio honetan:

(Zenbakiz eta hitzez) _____ euro

Data eta lizitatuzailearen sinadura eta, hala badagokio, enpresaren zigilua.

2. ERANSKINA

ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENAREN EREDUA

Nik, jaunak/andreak (nortasun agiri nazionaleko zenbakia:

.....), nire izenean edo ordezkatur (IFZ:.....), bertako naizen aldetik,

NEURE ERANTZUKIZUNPEAN ADIERAZTEN DUT:



1. Administrazioarekin eta horien mendeko organismo, erakunde publiko eta sozietateekin kontratuak egiteko legez ezarritako baldintza guztiak beteta, bai eta Arabako Foru Aldundiak 5 suhiltzaile kamioi besterentzeko deitutako lizitazioa arautzen duten baldintza partikularrak ere, SPKLren 71. artikuluan araututako kontratatzekeo debeku eta bateraezintasun arrazoietakoko batean ere ez nagoela, ezta Arabako Foru Aldundiarekin kontratatzekeo bateraezintasun kausetan ere.

Era berean, erantzukizunez deklaritzen dut:

2. Sozietatea balio osoz eratuta dagoela, hala badagokio.

3. Adierazten dut eskaintza eta adierazpen hau sinatzeko beharrezko gaitasuna dudala, eta, hala badagokio, adierazpenaren sinatzaile gisa, proposamena aurkezten duen sozietatearen ordezkaritza egokia dudala, eta botereak indarrean daudela.

4. Erosketan zuzenean edo zeharka sor daitezkeen gorabehera guztietarako, Espainiako maila guztietako epaitegi eta auzitegien jurisdikzioaren mende jartzen naizela, eta, hala badagokio, lizitatzailari legokiokeen atzerriko foruari uko egiten diodala.

Data eta aitortzailearen sinadura eta, hala badagokio, enpresaren zigilua.

3. ERANSKINA

EZAUGARRI TEKNIKOAK

1.- VI-9837-J



GIDABAIMENA: Vi-9837-J [Gidabaimen berria.pdf](#)

AZTERKETA TEKNIKOAREN TXARTELA: VI-9837-J TIT.

AZKEN AZTERKETAREN DATA: 2022-03-17. POSITIBOA. 113.087 KM.

2.- VI-3378-M



GIDABAIMENA: GIDABAIMENA_VI-3378-M.pdf

BEHIN BEHINEKO BAJA: VI-3378-M BEHIN BEHINEKO BAJA.

AZTERKETA TEKNIKOAREN TXARTELA: VI-3378-M TIT.

AZKEN AZTERKETAREN DATA: 2020-06-05. POSITIBOA. 103.977 KM.

3.- VI-5693-P



GIDABAIMENA: VI-5693-P BAIMENA.

AZTERKETA TEKNIKOAREN TXARTELA: VI-5693-P TIT.

AZKEN AZTERKETAREN DATA: 2021-03-18. POSITIBOA. 69.040 KM.

4.- VI-7463-P



GIDABAIMENA: VI-7463-P BAIMENA.

AZTERKETA TEKNIKOAREN TXARTELA: VI-7463-P TIT.

AZKEN AZTERKETAREN DATA: 2021-08-19. POSITIBOA. 70.999 KM.

5.- VI-3478-U



GIDABAIMENA: VI-3478-U gidabaimena.

AZTERKETA TEKNIKOAREN TXARTELA: VI-3478-U TIT.

AZKEN AZTERKETAREN DATA: 2023-06-05. POSITIBOA. 172.901 KM.

MAHUKETARA BULKATZEKO PONPARIK GABE.